



# h b herritar batasuna

**ABERRI EGUNA,....**

## **NAFARROAKO ERRESUMATIK NAFARROAKO ERREPUBLIKA SOZIALISTEN BATASUNERA.**

Gaur, 2023ko Abuztuaren 15ean, hemen Bildu gara Nafartarrok Orreagan, Karlo Magnoren gudarostearen gaineko garaipena ospatzeko eta nazioartean Euskal herritar guztiak ordezkatu gintuen lehenengo erakunde juridiko bakarraren embrioiaren sorrera ospatzeko ere, hau da; NAFAR ERRESUMA. Letrak eta literatura garatu zituen estatua, hugonoteak errepresio katolikotik Babestu zituena, bere lurraldean hitz egiten ziren hizkuntzak errespetatu zituena eta Pirineoetako zuzenbideari gorpurtz juridikoa eman ziona.

ZUZENBIDE PIRINIARRA, pirineotako mendi katearen bi aldeetan hedatzen zen, Akitania eta okzitaniaren zati bat iparraldetik, kantauri aldetik Galizaraino iristen zen; eta hegoaldetik Cameros lurralderaino, goranzko bidean, Astorgara iritsi arte.

Aintzinatean galdutako eta erromatar inperioak errespetatu zuen zuzenbidea, ain zuzen ere.

Idatzizkoa izan gabe ( Nafarroako erresumak gorpurtz juridikoa eman zion arte), Ahozkoa zena, erabileran eta ohituran oinarritzen zena, eta lurraren jabetza partikularrekoa ez zena, kolektibo eta ohiturazkoa baizik. Lege idatziaren ohitura eta erabilerari lehentasuna emango zion zuzenbidea. Zuzenbide honek hainbat FORU sorraraziko lituzke, ala nola JAKA, NAJERA, GASTEIZ, DURANGO, BIZKAIKO ENKARTERRIAK, TRASMIERA (KANTABRIAN), MERINDADEAK, MERINDADEAK eta BURELA (Burgos). GIPUZKOAKOA, UZTARITZERAKOA eta NAFARROAKO GORTEAK; Besteak beste.

ZUZENBIDE unibertzala, zein bere defentzan BAGAUDA mugimendua sortuko zuena, eten gabeko gudak izango genituenak Franko eta bisigodoen aurka, eta Nafarroa osoa suntzitu Zuten bandokideen arteko gerrak sortuko zituena , eta monarkia baten itxurapean Nafar estatua desagiteari hasiera emango ziona , 1620an erabat desagertuz .

Mendeetan zehar eta gaur egunerarte, beti saiatu dira geu herri gisa desagerrarazten, Beste herri boteretsuagoen artean desagiten. Desagertutako

herrien historia museoan sartu naian. Gureak ez diren izenak jartzen, gurekin kontatu gabeko istorioak kontatzen, Gureak izan ez diren legeak inposatzen. Beti izan dira gurekin zerikusia ez duten herriek nola bizi behar dugun esan digutenak, traidore batzuen laguntzaz.

Geure historia manipulatu dute. Hemen, Orreagan adibide bat dugu, gure betiko eta ORREAGA deitzen zenari Roncesvalles izena inposatu ziguten.

Hori guztia ez zatekeen posiblea izango traidore nafar batzuen laguntzarik gabe, eta gure Herriak asko ditu, aintzinatik hasi ta gaur egunerarte. Haro etxeko Iñigo López De Harorekin hasita gaur egungo alderdi politikoeekin jarraituz, UPN, EAJ, EH BILDU edo geroa Bai adibidez.

Iritsi da garaia gure istorioa benetan idazteko eta berridazteko, gure hizkuntza, euskara, uskara, euskara, ezagutua eta aztertua izango den fronte kultural bat sortzeko.

Iritsi da garaia euskal herritarrak ordezkatzeko dituen nazioarteko erakunde juridiko Bakarra berreraikitzeke. Hau da; ESTATU NAFARRA; baina ez ikuspegi burges eta kapitalistatik, langile klase proletarioaren kontzepziotik baizik.

PIRINEOETAKO ZUZENBIDE estatua gorputz juridiko berriaren oinarria da, non AUZOLAN eta BATZARRA babestuak eta garaituak izango diren, demokrazia zuzen parte hartzailea eta asanblearioa gauzatzeko, diktadura burges eta kapitalisten delegazionismoa betiko bastertuz.

Erakunde juridiko horrek NAFARROAKO ERREPUBLIKA SOZIALISTEN BATASUNA sortzen du, Ekoizpen komunistaren bidez, ekoizpen baliabideak langilego klasearen esku egon daitezen, lurra kolektiboa izan dadin eta ez jabetza partikularrena. Kudeaketa eta banaketa AUZOLANEN ETA BATZARREN esku egon daitezen.

**GORA NAFARROAKO EUSKAL  
ERREPUBLIKA SOZIALISTA!!!!**

**GORA NAFARROAKO  
ERRPUBLIKA SOZIALISTEN BATASUNA!!!!**

**GORA EUSKAL HERRIA ASKATUTA!!!!**

**GORA EUSKAL HERRIA KOMUNISTA!!!!**

**Herritar Batasuna**



*ABUZTUAREN 15 AGOSTO*

**ORREAGA  
2023**

**12:00**



**EKITALDE  
POLITIKOA**